

Bizkaiko Taldekakoa Algortan

Apirilaren 17an, asteazkenean, Bizkaiko Taldekakoaren kanporaketa bat izan genuen Algortan. Bertan, Lea Artibaiko "LeartiBai+" eta ALBEko helduen bertso eskolako kideek osatutako "Karidadeko Masokistak" taldeak aritu ziren.

Lehenengo saioa Salem tabernan egin zen, 19:00etan, Iñigo Kortazarren gidaritzapean. Algortako taldeko bera eta German Kortabarria izan ziren lehen saio honetan gai jartzaileak. Bertan, Aissa Intxaustik lehenengo agurrean esan zuen bezala, "Talde personajea bietatik zein den" erabakitzea zen lehia, eta sari hori lortu nahian edo, bi taldeek hasieratik argi utzi zuten ahal zen heinean gaiei umoretik erantzuten saiatuko zirela.

Agurren ondoren lehenengo ofizioa puntuagarria hasi zen, zortziko handia. Gaiaren arabera Lurdes Ondaro eta Josu Landeta etxe bila zebilen bikotea ziren. Lurdesez herri txiki batean bizi nahiko luke eta Josuk berriz hirigune handi batean.

Ofizioa bizi-bizia izan zen, 5 minutu pasa baino lehen bukatu zituzten 6 bertsoak eta ideia ugari aipatu zituzten bi bertsolariak, besteak beste, hiriko estresa, herriko ondasun falta, lagunaren gertutasuna eta pintxo potea. Bikotean negoziaketa antzeko bat zegoela zirudien, azken puntuari Ondarok "bakoitza bere kontura" hobeto biziko zirela esan eta ofizioa eta erlazioa amaitutzat eman zituen arte.

Ofizioaren ondoren bakarkako bi lan egin behar izan zituen talde bakoitzak. Lehenengo, Lekeitioko Oier Azula hurbildu zen mikrofonora lau oinak eta azken aurreko puntuari emanda zortziko txikian bi bertso osatzeko. Bigarren bertsoan, zortziko handiko ofizioari gaiari erreferentzia eginez, saioan adi egon zela erakutsi zuen.

Gero Algortako Peio Arondok egin zituen bi ariketa horiek. Peiok bi bertsoak ildo berdinetik bideratzea erabaki zuen. Lehenengoan gabarra ikustera joan ez zen "Bizkaiko eskirola" zela esan zuen, eta bigarrenean argi utzi zigun gabarrak izan zuen arrakasta ikusi arren hartutako erabakiaz ez zela damutzen.

Gabarra Sevillan Athletic-ek irabazi zuen kopa ospatzeko atera zen eta 10eko txikian Sevillara bidaiatu edo ez erabaki behar izan zuten Aissa Intxaustik eta Oier Aizpuruak. Baina kasu honetan ez zen kopako finala ikusteko, lagun batek Apirileko feriako azken egunak ospatzera gonbidatu zituelako baizik. Aissa gogotsu zegoen baina Oierrek nahiago zuen EAEko hauteskundeetan parte hartu.

Aissak hasieratik irudikatu zuen bere burua Trianan “takoi altuekin ta bolante gorridun soineko batekin” dantzan, eta Oierrek, bozkaren bidez, Sevillako leloari erreferentzia eginez, “hemen margo espeziala” jartzea proposatu zion.

Politikarien izen eta ezizenei buruz ere aritu ziren, besteak beste gerora bertso gehiagotan agertu behar zen Nobita, eta bozka batek duen balioa zalantzan jarri zuen Aissak. Hala ere ez zuen Oier hauteskundeetan parte hartzeko gogo barik utzi, baina honek akordio batera iristearren edo, eta gabarra eta Sevillaren arteko erlazioa gogoan izanda, goiz bozkatu eta ondoren “gabarra lapurtuta hara joango gara” bota zuen ofizioa ixteko.

Ondoren talde bakoitzeko bertsolari batek hitz bati bertso bat bota behar izan zioten. Beñat Lopez eta Oier Azula izan ziren ariketa honetako bertsolariak. Ariketa gehienez 10eko handian egin zitekeen arren, biek 10eko txikian egin zuten “Agur sagar beltzaran” doinua erabiliz.

Beñatek “soldata” hitzari kantatu behar izan zion, eta “nahiko *lukeen* haina” ez zuela kobratzen onartu arren bere “lana ez uzteko nahikoa” zela ere esan zigun. Oierrek berriz “zero-zero” hitzaren inguruan bota zuen bertsoa, eta saio puntuagarria bukatzeko bertso ederra eskaini zigun:

Taberna gustoko dut
Hainbeste endredo
Liatu naiteke ni
la egunero
Ta kañak hartu eta
gidatu ezkerro
kontrolean putz egin
behar dugu gero
zergatik ez du jartzen
inoiz zero-zero?

Ez dakigu benetako gertaeretan oinarritutako istorioa zen edo ez, baina bertso honekin irribarretsu bukatu zuen Oierrek eta baita Salem tabernan batu ziren zaleek ere. Gero epaile lanetan zebiltzan Nerea Ibarzabal eta Aitor Fernandez de Martikorenak puntuak batu, eta 4 puntuko aldeagatik LeartiBai+ taldeak irabazi zuela adierazi zuten.

Bukaerako agurretan Lurdes Ondarok ALBEko kideek antolatutako iluntzea eskertu eta entzuleak Azebarriko saiora gonbidatu zituen.

Lurdesen gonbitea onartuz 20:30etan Azebarrin batu ziren bigarren saioari ekiteko. Saio honetan Jone Antsoategi eta Nerea Ibarzabal izan ziren gai jartzaileak, eta bigarrenak hartu zuen saioa gidatzeko ardura. Saio honetako hasierako agurrak puntuagarriak izan ziren, eta bi taldeek koplekin hastea erabaki zuten.

Josu Landetak soinua hartu eta Karidadeko Masokistek erronka bota zieten bisitariei Lea Artibai saio honetan Lea ArtiEz bihurtuko zutela esanez. Lea Artibaikoek berriz publikoari entzutera hurbiltzea eskertu zioten benetako "masokista saioa entzuten duena" zela esanez.

Azebarriko lehenengo ofizioa 8ko txikia izan zen. Beñat Lopezek bikotearekin moztu zuenetik astebururo mendirako plana egiten zuen Lurdes Ondaro bere lagunarekin. Anboton gora zihoazela Lurdesek Beñati zeozer esaten dion puntuan kokatzen zen gaia. Kasu honetan Lurdesek "sinesgaitza bada ere bizitza bat" zuela esanez hasi zuen ofizioa, baina Beñatek plan berriak egiteko gogoarekin jarraitzen zuenez, bukatzeko Anbotoko Mariri Beñat bikotearekin itzul zedin eskatu zion. Honek azken bertsoan bere "ustez bakarrik hobeto egongo" dela esanez bukatu zuen kantaldia.

Salemen bezala Azebarrin ere, lehenengo ofizioen ondoren bakarkako lanetara pasatu ziren. Kasu honetan gai bati bi bertsoz erantzun beharko zieten Aissa Intxausti eta Josu Landetak.

Aissa lesionatu egin zen eta Osakidetzara deitzean zita Abuzturako ematen zioten. Abuztua antza gertu ikusi zuen Aissak eta Abuztua bai, baina 2025ekoa zela esan zuen lehenengo bertsoan. Bigarrenean politikarien ekintza falta aipatuz aukera bakarrak "IMQa ordaindu edo [bere] kojerakin bizi"-tzea zirela esanez bukatu zuen bakarkako lana.

Josuren gaiean berriz ere gabarra izan zen protagonista. Josuren alaba txikia futbolean zebilen eta Athletic-en mutilen taldearen garaipenaren ospakizunak ikustean zera galdetzen zion bere aitari: Aita, neskek irabazi zutenean ere atera al zen gabarra?

Josuk pentsatzeko tarte bat hartu ondoren bertso biak jarraian bota zituen. Hasi bezain pronto alabari erantzun zion, merezi zuten arren irabazi zutenean "gabarrarik ez ta horrek utzi euskun nahiko gustu txarra" eta aurten jasotako "tabarra"-rekin alderatu zuen. Bigarren bertsoan, etorkizunari begira, alabari saiatzen jarraitzeko esaten zion "hurrengo baten gabarrarako" aukera izango zuela eta hor bai, bere ere jaira hurbilduko zela esanez.

Bi gai hauek nahiko serioak izan ziren eta entzuleek bazuten ia umorerako gogoia eta hurrengo ariketak eman zien barre egiteko aukera. Potokumeak izeneko ariketan bertsolari batek habanera bat kantatu behar du bere bi taldekideek oinak ematen dizkioten heinean. Gaia hitz bat zen.

LeartiBai+ taldea hasi zen lehenengo, hitza adina, eta kantuan Oier Azula. Adinak dakartzan arazo batzuei buruz aritu zen, mina, loditzeko erraztasuna, ... baina azkenean goi goian bukatu zuen "total nik ez dut ematen, berez daukadan adina" bota zuenean.

Karidadeko Masokisten hitza gaba izan zen. Hor Oier Aizpuruak aurreko ariketetako gaiak lotzeko duen abilezia erakutsi zuen, Doraemonen "ron pon pon" eta berak agurrean aipatutako txanpainaren metaforari aipamenak eginez gau horri buruz kantatu zuen, argi utziz oraindik ALBEko kideek garaipena lortzeko asmoa zeukatela.

Bukatzeko eta umorea aldera utzi gabe, Oier Azula eta Peio Arondo koplatan ibili ziren. Peio taberna baten jabea zen eta goizean, taberna irekitzean, aurreko gauean barruan geratu zen Oier bezeroa topatu zuen bere buruari kaña bat zerbitzatzen. Bi bertsolariek elkar gustura zirikatu zuten bertsoaldi honetan, fustea edo fuste falta, *fusta* eta masokismoa aipatuz, besteak beste.

Saio puntuagarria bukatutzat eman arren, giroa ona zenez talde bakoitzeko bi bertsolari mikrofonoetara hurbildu eta puntuka kantuan hasi ziren, arratsaldean zehar bizitako egoera desberdinei kantatuz, eta nork irabaziko ote zuen iragarritz. Oier Aizpuruak azken puntuan, une horretan barra atzean zegoen German Kortabarria taldekideari "German atera ezazu, frigotik txanpaina" botaz itxi zuen puntukako saio inprobisatua.

Ez dakigu Germanek hozkailuan txanpainik zeukan edo ez, baina Algortako taldeak ezin izan zuen garaipenik ospatu. Jone Antsoetegi eta Aitor Fernandez de Martikorena epaileen puntuaketaren arabera, puntu erdigatik LeartiBai+ taldeak irabazi baitzuen bigarren saioa. Bi saioak irabazita beraz, LeartiBai+ taldea izan zen hurrengo faserako sailkatu zena.

Bukatzeko, azken agurretan Leartiba+ taldeak berriz ere antolatutako arratsaldeagatik eskerrak eman zizkien ALBE kideei, eta beraiengana nahi dutenean hurbiltzeko eskaintza luzatu zieten. Etxekoen azken agurrean Josu Landetak panderoa hartu eta are gehiago girotu zuen Azebarri.

Arratsalde osoan zehar izandako giro ona ospatzeko, etxeko taldeak bi taldeetako partaide eta hurbildu ziren entzuleek afaltzeko pintxo batzuk atera zituen, eta une batez bertsoak utzi eta berriketari ekin zioten Azebarrin batutako lagunek.